



[www.pixkanakakaskari.org/vital-iv-epsv](http://www.pixkanakakaskari.org/vital-iv-epsv)

**Merkatuko erreferentziak**



Eurostoxx50: %13,7  
Ibex35: % 12,2  
Bonoa 10urte: %3,28  
KPI: %0,8 (Otsaila)

**2023 metatutako emaitza**

**%3,47**

**Zorroaren banaketa**

**Errenta finkoa.** %62,3  
**Err. aldakorra.** %32,3  
**Inb. altern.** %5,4



Martxoak 2023

**Joera positiboa**

Martxoan Silicon Valley Bankek eta Credit Suissek sustoak eman dizkiguten arren, errenta aldakorreko merkatu gehienetan joera positiboa da oraindik, eta horrek mesede egiten dio gure BGAEaren likidatiboari

Banku horien porrotak ekarri diguna banku zentralen tasen igoeraren erritmoari buruzko eztabaida da, eta interes-tipoen sabaia non egon daitekeenaren galdera.

Adi jarraituko dugu.



# BGAE Vital IV: heriotza

Bazkide aktiboaren heriotzaren kasuan Gizarte Segurantzaren pentsioa jasotzeko eskubidea sortzen duten alargunek eta umezurtzek hitzarmenean jasotako oinarri arautzailearen %50 eta %20 arte osatuko dute pentsio hori, hurrenez hurren. Alargunaren kasuan, osagarri hori bazkideak erretiroa hartuko lukeen egunera arte kobratzen da, eta umezurtzen kasuan, 26 urte betetzearen muga dago.

**ALARGUNA**




**UMEZURTZA**



\* Pentsio eta osagarriek ezin izango dute bazkidearen hitzarmenean jasotako oinarri arautzailearen %100 gainditu. Lehenengo urtean, alargunek langileari legokiokeen ordainsarien %100 kobratuko dute.

## Zer funtsekin estaltzen dira konpromiso horiek?

Erretiro-adinera arteko pentsio-osagarriak FIMAREN kontura izango dira (baliazintasunen eta heriotzen funtsa), bazkidearen funts pertsonalak ukitu gabe.



Behin erretiroa legokiokeen datara iritsita, osagarri horiek amaitzen dira, eta bazkidearen funts pertsonalak erabil daitezke.



**i** PK aldizkariko harpidedun egiteko: [www.pixkanakakaskari.org/aldizkaria](http://www.pixkanakakaskari.org/aldizkaria)